



Osoko Bilkurak, 2021eko abenduaren 22an egindako bilkuran bestiak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**6.- HENASE, HERNANIKO NEKAZARI ELKARTEAREN ALDEKO DIRULAGUNTZA IZENDUNA ONARTZEKO PROPOSAMENA.** - "Henase" Hernaniko Nekazari eta Abeltzainen Sustapenerako Elkartea, 2022rako elkartearen jardura laguntzeko eskaera luzatu dio Udalari. Elkartearen asmoa, Hernaniko udalerriko nekazaritza eta abeltzaintza jardura ekonomikoaren, enpleguaren eta paisaiaren sustapenerako eragile gisa dinamizatzea da. Sektorereko eragileen beharren defentsarako beharrezkoak diren zereginak egiteaz gain, tokiko ekoizpena kontsumitzaileentzako erakargarri eta eskuragarri egin eta herritarrek 1go sektorea hurbilekoa eta propioa den zerbait bezala sentitzea.

Horrietarako, 2022 urtean lantzeko honako helburuak jasotzen dituen programa aurkeztu du (hitzarmenari erantsita):

- 1.- Salmenta puntuen sorrera bultzatu, bitartekariak ekidinez, erosleari bertako produktuak zuzenean eskuratzeko aukera eman.
- 2.- Gazteak nagusiki eta pertsona berriak orokorrean erakarri sektorera, lehen instalazioan eta ondoren izango dituen beharrek lagunduz.

HENASE, Hernanin dagoen nekazaritza eta abeltzaintza elkarte bakarra da; honezkeroko herriko ekoizleen kopurua araberako ordezkari maila handia du eta Hernaniko 1. sektoreko ekoizle profesional guztientzako irekita dago.

HERNANIKO UDALAK, Herriko nekazaritza eta abeltzaintza sektoreari laguntza eman nahi dio, horrela enplegua sustatzen da, herritarren bizi kalitatea hobetu, eta oro har 1go sektoreko eskaintza zabala bermatzeko pausoak ematen dira eta herria, bizirik mantentzen da. 1go sektorerik gabeko herria hilik dago.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Horiek horrela, aho batez zera erabakitzen da:

- 1.- Diru-laguntza Zuzena emateko Hernaniko Udala eta Henaseren arteko diru-laguntza hitzarmena onartzea.

Onuraduna: Henase elkarte

Kopurua: 50.000 euro

Epea: 1 urte (2022/12/31).

Kontusaila: 02.481.02.439.00 2021-Henase.

Finantziak: Aurrekontuko Kreditu Globalaren kontura.

- 2.- 2021eko udal aurrekontuaren Diru-laguntza eranskina aldatzea.

- 3- Espedientea jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu."

Jakinaren gainean egoteko eta dagozkion ondorioak izateko bidaltzen dizut erabakia. Dena den, udalbatzarraren akta onartu gabe dagoela ohartarazten dizut.

Hernanin, 2022ko otsailaren 16an.

Bitarteko Idazkaria,